

# Juan Ignacio de Iztueta: euskal dantzen erreforma ilustratua\*

(Juan Ignacio de Iztueta: The Enlightened Reform of the Basque dances)

Sánchez Equiza, Carlos

Nagusi Kalea, 57, 4. D

31001 Iruñea

BIBLID [1137-4470 (1999), 11; 149-158]

---

*Egileak Iztuetari buruzko interpretazio berri bat proposatzen du, Iztuetaren lana bere inguru historikoan kokatuz. Egilearen ustez, Iztuetaren liburuan agertzen dena ez da, berak aurkezten duen bezala, apologisten moduan egindako tradizio zaharren bilduma bat, ilustratuek egin zuten benetako erreforma baten ondorioa baizik. Erreforma honen ga-rrantzia, estetikoa izateaz gain, sozial eta politikoa ere izan zen, eta garai horretako euskal dantza tradizionala eta Euro-pako dantza eruditoaren arteko mestizaje batean zetzan.*

*Giltz-Hitzak: Iztueta. Euskal dantza. Ilustrazioa. Apologismoa.*

*El autor propone una interpretación de la figura de Iztueta basada en el contexto histórico de su obra, concluyendo que lo que realmente aparece en ella no es, como su autor presenta, una recopilación de la tradición hecha en términos apologistas, sino el resultado de una auténtica reforma realizada en ella por los ilustrados. Esta reforma, planteada no solamente a nivel estético, sino con connotaciones sociales y políticas, consistió en esencia en un mestizaje entre la danza tradicional vasca y la erudita europea de la época.*

*Palabras Clave: Iztueta. Danza vasca. Ilustración. Apologismo.*

*Le auteur propose une interprétation de Juan Ignacio de Iztueta basée sur le lieu historique de son oeuvre. Selon, ce qui Iztueta dit dans son livre n'est pas une compilation de la tradition faite en termes apologistes basques, mais le résultat d'une véritable réforme faite par les illustrés. Cette réforme, pas simplement esthétique, mais aussi social et politique, consistit en un mixage de la danse traditionnelle basque et l'érudite européenne de l'époque.*

*Mots Clés: Iztueta. Dance basque. Siècle des lumières. Apologie basque.*

---

\* Artikulu hau nire *Del danbolín al silbo: Txistu, tamboril y danza vasca en la época de la Ilustración* izeneko libururen zati baten laburpena da. Gotzon Ibarretxe eta Mikel Oruberi eman behar dizkiet nire eskerrik beroenak, testu hau euskaratzeko haiengandik jasotako laguntzagatik

## GAIAREN PLANTEAMENDUA

Posible ote da, une honetan, Iztuetari buruz zerbait berririk idaztea? Jose Inazio Ansorenak, zaldibiarri buruzko bere azken lanean (1995), ia ehun liburu eta artikulu aipatzen ditu bere bizitza edo bere lanaz. Jose Garmendia Arruabarrenak, kasu, bere bizitza eta nortasunaren hainbat eta hainbat alderdi argitu dizkigu, eta antzeko zerbait esaten ahal dugu Jose Inazio Ansorenak egindako lanaz, oterik gabe testurik funtsezkoena Iztueta eta Albéniz-en lan musikala ezagutzeko. Hala eta guztiz ere, ene ustez merezi du zaldibiarren nortasun konplexu eta aberatsaren alde batzuk argitzea, eta, batez ere, haien ingurune historikoan kokatzea. Hau da, hain zuzen ere, lan honetan proposatzen dudana.

Jose Garmendia Arruabarrenak (1984) -nola ez- erakutsi digu seguraski Iztuetarengan eragin haundiena izan zuen pertsonaia: Don Preciso, hots, Juan Antonio de Zamácola e Iza dimarra. Iztuetaren paragrafo askok, izan ere, Zamakolaren kalkuak dirudite askotan, eta oso zaila da bien ideietan diferentziak aurkitzea (arras ezberdina izanen litzateke, noski, beraien bizitzei buruz hitz egitea). Zamakolaren bizitza eta pentsamoldea agian ulergaitzak dira; eta ez bakarrik guretzat, bere garaikide anitzentzat ere bai: ziur aski, hori zen bere zoritxarreko bizitzaren zergatia. Hala ere, bere pentsamoldea ez zen batere burugabea, eta bera ez zen modu horretan pentsatzen zuen bakarra.

Diman sorturik, bere ideak, Simón Bernardo anaia ospetsuarenak -Zamakolada-ren protagonistarenak- bezalakoak, ilustratuak ziren. Kargu batzuk hartu zituen Jose Bonaparteren administrazioan, eta horregatik Frantziara erbesteratu behar zuen Independentzia-ko gerra bukatuta. Frantsestutzat hartu zuten, baina bere lan literarioek argi eta garbi erakusten dute bere jaioterria-ko zaletasuna. Bere *Historia de las Naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo septentrional* (1898), Iztuetarengan ikaragarritzko garrantzia izan zuen liburua, nahikoa da euskal apologismoaren defendatzailetzat hartzeko. Han, beste garaikide batzuk bezala, vascoiberismoren alde agertzen zaigu, euskaldunak Espainiako biztanle jatorrizkoak zirela esanez. Agian honek azaltzen ahal du zergatik gaztetan, Madrilen bizi zenean, Espainiako musika dantza arrotzen kontra defendatu zuen liburu batzuetan. Batzuek, hala nola bere *Co-lección de las mejores Coplas, Seguidillas, Tiranias y Polos que se han compuesto para tocar a la guitarra*, sekulako arrakasta izan zuten. Azken honetaz, sei argitalpen egin ziren 1799 eta 1869-ren artean.

Bi iturri hauen nahasketan -Ilustrazioa eta Apologismoaren nahasketan- edan zuen Zamakolak. Ikusiko dugun bezala, Iztuetak ez zuen besterik egin. Orain arte, ezagutzen dudan neurrian behintzat, bakarrik bere alde apologista jarri da begibistan. Izan ere, oso erraza da ideologia hau Iztuetaren testuetan aurkitzea. Bere *Gipuzkoa'ko dantzak*—en hitzaurrea modu honetan hasten da (38-40 orr.):

*Nere erritar maiteac, badakigu jatorriz gueradena España uts-utsac, anziñacoen eta are lembizicoen etorkiac eta ondocoac; beragatic nasteric gabeco garbienac, piñenac, le-yalenac eta leñargui edo noble-enac: erbesteco nagusiren uztarripetan bein ere egon ez gueradenac. Ez eta egon nai ere. [...]*

*Guzia zor zaie, araco beren etorqui onari, eta jaiot errico oitura maitagarri amodiozco naitasun irazekia izanic, sail necosoai gogotic ekin ta, indar aundico etsai ascoren contra guda gogorrac eguinondoan guziac garaituric oñ azpiratu dituzten gure anaia leial biarki -*

*lletsu jakintiai. Onelacoac izan ditugu beste ascoren artean señalatu-enac, Aita Larramendi bearguilletsua, Astarloa jakintia eta Ero zentzu aundikoa.*

Euskaldunen aintzinasuna horrela frogaturik, ez zen arraroa haien dantza eta musikak ere aspaldikoak izatea, Iztuetak argi eta garbi jartzen duen bezala J. B. Ero aipatuz (74 orr.):

*Euscaldunen dantza mota guziaz, Jaincoaren Semea guizon eguiñic mundura etorri baño lenagoco dembora aietan-ere, aiñ onestasun aundicoac oi-ziraden, nola gueroztic ezagutzen-ditugun. Beguira ezazute bada, Don Juan Bautista Ero gure erritar maitagarriac aguetaratu zuen obra gogoangarri, lembizico Abezedario edo Alfabeto primitiboaren 129 garren orrira ; non icusico-dezuten arguiro, gure asaba onac beren Aita-lenen prestuac gordacaiatuaz, Jainco eguiazco bacarra laudatzen zuten jostallu egunetan eguin oi zuten dantza-mota, bere Damboliñarekin. Anziña-anziñaco dembora ayetan ere aiñ donedatiac edo religiosoac ziraden Euscaldunac, non, dantzan zebiltzala escuac alcarri ematearekin-beren eguille aundia iraiñdu zezaten beldurraz, mocones edo pañueloac batac besteari emanta ibilli-oi-ziraden, chit modesti-aundiarekin: izendatu deran toki-bercan icusten-dan bezela.*

Iztuetaren alde ilustratua ere garbi ikus daiteke: ideia hauek, Zamakolaren bidez, Rousseau-rengandik ateratzen ditu zaldibiarrek. Filosofo eta teoriko musikal honen arabera, adibidez, musika ez zen hizkuntza unibertsal bat. Beraz, musikaren ulermena ekintza historiko eta kulturala zen. Bere hitzetan *bakarrik bakoitzaren doinu familiarrek hunki gaitzakete* (Fubini 1990:206 eta hurr.), eta horregatik soinuak herri bakoitzaren hizkuntzaren arabera aldatzen ziren. Ildo honetatik, *Don Preciso*-k horrela esaten zuen (1799, 2, XXVIII eta hurr.):

*[La música] nace con nos, y obra los efectos segun las costumbres de las diferentes naciones, y la índole de su lenguaje sobre cuya poesía se compone; y así se ha visto que todos los pueblos del mundo desde los mas bárbaros hasta los mas civilizados, han tenido y tienen su género de música propia ó nacional para explicar sus pasiones: ¿y hemos de ser tan negados los Españoles, que teniendo música análoga a nuestro carácter, queramos olvidarla para adoptar la italiana, compuesta sobre una lengua afeminada?*

*[algunos afirman que] la música no tiene patria, porque el corazón humano, que es donde debe obrar, está en todas partes en el mismo grado de perfeccion, y por consiguiente no hay duda que debe haber ciertos sonidos que yeran á todos. Esto es un delirio de la imaginación de algunos filósofos. El hombre en cualquier parte tiene dispuesto su corazón a las pasiones; pero éstas se manifiestan de distintas maneras en los diferentes países, segun las circunstancias en que se hallan*

Garbi samar dago ideia hauen eragina Iztuetaren hainbat eta hainbat paragrafotan. Hona hemen, adibide gisa, berak esandakoa bere garaiko danbolin gazteen ereduaz: (108-110 orr.)

*Gutziz-arazo-aundiakin biribillatzen-ditu Frantziatic, Italiatic, Inglateratic, eta norc daki nondic, modaco soñu-arrotz guziaz; eta bere jaiot-erritoric ezdu-nai bat-bacarra-ere icasi ez-eta beren-izenic aditu-ere.*

*Erbesteetatic-biribillatuc-oec berac-ateratzen-dituen zembaitekin naspillaturic, irte-ten-da plaza-aguiricora darauskiola marmariza-bat ain zalagardatua eta arrotza euscaldunentzat, nola izango-litzakean chinoen itzcuntza, beren esacariac adierazotzeco*

Baina badaude alde interesgarriagoak. Rousseau-rentzat, XIX. mendea baino lehenagoko musikari eta teoriko musikal gehienentzat bezala, ahozko musika musika instrumentala baino garrantzitsuagoa zen. Hala ere, gai honi buruz zuen irudia nahiko originala zen: ahozko musika garrantzitsuagoa zen *bakarrik kantuan aurkitzen zuelako berriro musikak bere jatorrizko izaera* (Fubini 1990:206). Genevakoaren hitztetan, hasiera batean

*ez zegoen melodiazkoa baino beste musikarik, eta hitzaren soinu modulatu baino beste melodiarik, azentuek eratzen zuten kantua, kopuruek osatzen zuten erritmoa eta bai soinuez bai ahotsen erritmo eta artikulazioaz hitz egiten zen<sup>1</sup>*

Zibilizazioarekin batera, zoritxarrez, hizkuntzek galdu egin zuten haien jatorrizko eztiatsuna, eta handik aurrera bakarrik arrazoiketak adierazteko balio zuten. Don Preciso-k Euskal Herriari aplikatzen dio ideia hau:

*Los naturales de lo interior de la Provincia de Guipuzcoa pronuncian su bascuence casi cantado, y si pasamos de allí a las riberas del Vidasoa y a lo interior del Pirineo, donde todavía no ha hecho tantos estragos la corrupción, nos desengañaremos de esta verdad a poco que observemos. Jamás se ha visto entre estas gentes poesía que no sea cantada ni música que no haya sido hecha para la poesía: porque aun aquellas hermosas canciones llamadas Zorzicos, o de ocho compases, que se tocan con tamboril y silbo para baylar en sus danzas públicas, están compuestos sobre poesía bascongada*

Eta lztuetak gauza bera egin zuen. Agian paragraforik interesagarriena hauxe izan daiteke:

*Uste det bada nic, lendabizico guizonac dantzan abiatu ziraden dembora ayetan, etzala ez chilibituric, eta bestelaco oslancairic, eta dantzatu oi ziradela aboz itz neurtuac cantatuaz. Bada soñu oec nola dantzatu bear diraden dakiten guziac, egokidatuco dira nere irtizi onekin; zergatic, itz-neurtuen otsideco edo consonante guzietan artu-bear-diraden puntuac<sup>2</sup> escuico oñarekin, nola artu bear baitan boleararen azkeneco jar-era edo parada. [...]*

*Dantza ez da beste gauzaric, ezbada, oñakin cantatzea, edo cantaren mugida eta itzac berakin berdin-berdiñ eta bat batean arturic, soñuaren zatiric chikiena ere irudicatzea, bera baliz-bezala (235 orr.)*

Baina, zaldibiarrentzat, afera ez zen han gelditu: egile apologistek esaten zutena egia baldin bazen, jatorrizko hizkuntz horrek euskara izan behar zuen:

*Guizonaren naikida eta eresiaric audienatic bat da zori oneco guizon lendabizico eta -ra bide zuzenetatic igotzea; icusteagatic arguiro, irudipen gabetanic, beren izaera garbi doatsu eraz betetacoa; beragatic ibilli izan dirade munduan ezagutu diran guizonic jakintsuenac, beren buru zenzutsuac puscatzeco zorian, jo ezac andic, eta jo ezac emendic, arkituco ote dutelaco bide chior bat bederic gain aratara igotzeco; baña ez du lacaric atera bestec, ezpada euscaldunac.*

*Bazekiten Pitagoras sonatuac, Platonec, Plutarcoc eta beren lagun amatu ascoc, bide doatsu-eraz betetaco au aurkitu bear zana lendabizico izkeran: baña nola etzuten au eza gutzen, ekiten zitzaiozcan bein batari, guero besteari, au zakitu, ura zeatu, oni kendu, ari erransi, asmatu alzitaten arabaketa guziac equiñaz, eta azquenean guelditzen ziraden ez nondic sartu ziran, ez nola zebilzan, eta ez nora irten etzekiela. Baña gure anaya maitagarri lengo izendatu dituran orieac beren jaiotzaco izcunza jakintiac escu leun, guri, gozoa emanic igo ditu zuzenki, zori oneco dembora lembizico aietara, eracusten dielaric, bidez, historiaric zarrenac eta sonatu-enac ez dakitzaten gauza audio asco, chit balioso, goi, me diradenac (42 orr.):*

Ene ustez, bakarrik honek adierazten ahal du zergatik lztuetak azpimarratzen zuen behin eta berriz hitzen garrantzia, batez ere dantza zaharretan, adibide honetan bezala (106 orr.):

1. Rousseau, J. J.: *Essai sur l'origine des langues*, XII, Fubini (1990, 206) aipatua.

2. Konpasak

*¿Zeñec nayagoco-ez-du bada enzun, chilibituaren soñuan-ere, itzneurtu gozoakiko-zortzicoa, ezen ez-gabecoa? Damboliñac jotzen-duen soñua baldin bada itz-neurtuakicoa, enzunleac oaketzen-dirade itz-erazco-egokinsu-ayezaz, eta berac ongui-barnatu edo pe-netraturic, pozkidatzen-dirade naikidara. Baña itzneurturic-gabeco soñua, izan arren berri-berria eta chit-berrichua, edo guztiz-eguinkizun aundiac chilibituan dituenta, damboliñac jotzen zzer-beacarri edo objeto aurkeztu-aldakioteko enzuleai? Ez besteric, ez bada damboliñac dituela beatz-azcarrac eta mingaiñ-aniña; eta beragatic jotzen-duela ain-soñu-berrichua*

Ilustrazioa eta Apologismoa. Bi ideologia hauek gabe ezin da benetan ulertu Iztuetaren pentsamoldea. Berak jarri zituen harremanetan, baina bere ideiak ez ziren haien arteko kontraesanak konpontzeko bezain finak. Iztuetak, apologistek bezala, esaldi biribilez idazten du; baina ilustratua zenez, Arrazoiaren argiak ere erabili nahi zituen, eta saiatu zen arau arrazionalak ezartzen. Baina maneiatzen zuen materiala, herriko tradizioa, bere garaian landu gabe zegoen eta gainera ez zen batere egokia arau arrazional horiek ezartzeko. Agian horregatik, nahiz inoiz ez nahaste edo harridurarik erakutsi -*garbi* adjetiboa bere gogoenetarikoa zen-, teoria eta praktika beti ez zetozen bat dator.

## IZTUETAREN ZERBAIT KONTRAESAN

Zentzu honetan, agian alderik garbiena dantzen hitzena da. Ikusita dugu ideologia ilustratuaren eragina puntu honetan. Hala ere, dantza batzuk musika tresnaz jotzeko sortuak zirela hain garbi zegoenez, berak ez zion musikari hitzik jarri: hori gertatu zen, adibidez, aurrekuaren lehendabiziko soinu, edo brokel-dantza anitz doinuekin. Bertze kasu batzuetan -hala nola *ezpata-dantza*, *erreberentzia*, *alkate-soinua*... oso egile adituek (Orixek, Donostia aitak, Azkuek...) zalantzan jarri zuten haien benetakotasuna (Azkuek *de liturgia coreográfica* deitu zien (1919:I, 724). Iztuetak berak esan zuen kasu batzuetan Fernando VII.-aren zentsura zela eta, ezin zirela benetako hitzak agertu, eta horregatik hitz berriak asmatu behar zituela. Dokumentu honen aurkitzaileak berak, José Garmendia Arruabarrenak, uste du Iztuetak ezagutzen zituela doinuen musikak, baina ez hitzak (1995:81 eta hurr.; 267 eta hurr.).

Halako zerbaitek gertatzen da dantzen izenekin. Azkueren arabera, esate baterako:

*Así como la primera advertencia que hay que hacer al lector de su Guipuzcoaco pro-vinciaren condaira edo historia ceñetan jarritzen diraden arguiro beraren asieratic orain arte dagozquion barri gogoangarriac es que desconfie de su léxico, así quien se ponga a hoje-ar su Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia... no acepte como artículo de fe folklorística cuanto él diga de especies y nombres de danzas guipuzkoanas [...]*

*A unas danzas las denomina por su nombre, como Txipiritona, Ezpatadantza, Jorrai-dantza..., etc. ; a otras, quizás las más, les da por nombre el de la primera palabra de la canción, a veces alterada. Que hay no poco de fantasía, por lo menos en algunas denominaciones, nos lo muestra el propio Iztueta, por más que diga que estos nombres los tenían de antes:*

*Minuetari esango diot, Alcate soñua. Zortzico dos por cuatrocoai, asieraco zortzicoac. Seis por ochocoai, saltocacoac. Contrapasari, andre-en dieco soñua Contradantza dos por cuatrocoai, vizcai soñuac. Seis por ochocoai, salta rinchoac Soñuen compasai, puntuac (t. I, 258)*

Izen hauetariko batzuk ez datoz bat tradizioak edo beste egileek utzirikoekin. Egia da kultura tradizionala eta pentsamolde zientifikoa erabat ezberdinak direla puntu honetan: zientifikoan saiaturen da gauza bakoitzak bakarrik izen bat izaten, eta alderantziz; eta hori ez da maiz gertatzen tradizionalan. Baina honek ez du izen hauen benetakotasuna indartzen, kontrakoa

baizik. Bide honetan, izen batzuk bakarrik Iztuetaren liburuan agertzen dira: *saltarincho* (bibilketa), *saltocacoac*... kontrapasa *andre-en deieco soinua* bihurtzen da, eta aurrekoa (tradizioan hainbat eta hainbat izen jaso dituena) *gizon dantza*. Azken kasu honi buruz, J.A. Urbeltz-ek esan du:

*El noménclator establecido por Iztueta parece querer diferenciar estructuras de edad y condición social entre personas casadas (Gizon-dantza y Etxekoandre-dantza) y solteras (Neskatxena, Galaiena y Gazte-dantza), con lo que daría respuesta protocolaria a una realidad social que existía en las plazas de Gipuzkoa. Sin embargo es el propio Iztueta quien no acierta a distinguir entre estas supuestas diferencias. Así tenemos que al iniciar su comentario a Galaien esku-dantza viene a decir que "Si sucede que hay en la plaza jóvenes ansiosos de bailar, pero sin poder completar el número necesario para la guizon-dantza (sic), suplican al tamborilero que les toque el aire de esku-dantza". De cuyo comentario concluimos que las danzas diferentes no son respuesta a un problema de edad sino de cantidad de número. Si hay jóvenes suficientes se puede bailar Gizon-dantza con su complicado protocolo. Esta indefinición es la que levanta sospechas sobre este noménclator y en concreto sobre la denominación Gizon-dantza, que creemos es una creación metodológica del propio Iztueta (1994:492)*

Eta bukatzeko, zortzikoarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Iztuetak jarriko definizioa -zortzi *puntu* edo konpaseko doinua- berriro Zamakolarengandik hartuta ere, ez dator bat beste inolako definizioarekin. Iztuetak berak, gainera, aipatzen du zortzikoaren benetako jatorria: bertsoena (Sánchez Equiza 1991).

Ez dut gehiagorik esan nahi, bertze puntu batek garrantzirik haundiena duela garbi dagoelako: zaldibiarrek izugarrizko haustura sortzen du bere garaiko dantzetan: Dikotomia manikeo honen arabera, alde batean euskal dantza zahar eta onestak<sup>3</sup> daude; bestean, berriz, dantza arrotz, berri eta desonestak. Iztuetaren ustez, garbi dago bere garaian dantza hauek inposatzen ari zirela. Horrela adierazten du txistulari berriei buruz aritzen denean:

*Alboradac-ematera dijoatzenean, issil issilic aurkeztuco-dirade eche-atarian: non asico-duten Inglaterraco minue, edo mindue eta bucatuco-dute Franziaco balsakin edo atsekin. Oec eta okerrezo dantza Turkiacoen soñuac dirade, oraingo damboliñac darabiltzate nac (110 orr.)*

Azken hauen artean, kontradantza, fandangoa, eta baltsea aurki ditzakegu, eta hauen kontra ezin zorrotzago agertzen da. Fandangoari buruz, adibidez, berriro ere *Don Preciso* aipatzen du, esanez:

*entre los orientales no es la danza una imitación de la guerra, como entre los griegos, ni una combinación de actitudes y movimientos agradables, como entre nosotros; sino una representación licenciosa, lo más atrevido del amor; que esta danza llevada de Cartago a Roma anunció la caída de las costumbres republicanas; y finalmente se perpetuó en España por los árabes, bajo el nombre de fandango (145-147 orr.)*

Zaldibiarrek Hondarribia eta Hernaniko alkateak haien herrietan fandangoa debekatzegatik laudatzen ditu. Baina bertze une batean, aitortu behar du, dakigun bezala, hori normala zela bere garaian (230 orr.); eta ez da bere kontra jartzen ausartzen. Askoz ere nabariagoa da, dena den, kontradantzaren kasua. Hemen ere *Don Preciso* euskaratuz, arras garbi agertzen da bere kontra:

---

3. Jakina denez, garai honetan sekulako polemika sortu zen euskal dantzen onestasunez. Ukaezina da Iztuetak, espreski deus esan arren, bere liburuarekin eztabaidan parte hartu zuela.

*Oker-dantzaren izena bera dago esanaz dala dantzan bat antzikaco dantzaen contra - coa; baña ain prestueza eta parragarria ezic, zeñean nagoen ziertoro, baldin icusiko balu - ke sortaldetar batec lehendabizico aldian dantzatzan Europaco oker-dantza bat, ezin euki - datuco-lukela parra, uste-izanic ezen, ero biurtu diradela guziac, muguizten icustean dem - bora eta puntu batean lenibesco chimuac bezala (135 orr.)*

Hala ere, *bizkai-dantza* -ri buruz (gaur eguneko *arin-arin* -i buruz) hitz egiterakoan, hau xe dio:

*Dantza mota au da Bizcaitarren berenkia, zeña eguin oiduten fandangoaren modura dos por cuatroco contra dantzer<sup>4</sup> soñuetan, beragatic esan oi-zitzaian soñu guisa oei gu - ziai Bizcai dantzaco soñuac (230 orr.)*

*Fandangoaren modura contra dantzen soñuetan*, alajaina! Zaldiabarrak ez du beste erremiorik: aipatu behar du Bizkaikoa eta berria dela, baina inoiz ez du justifikatzen nola dantza arrotz, berri eta desonesto bat izan daitekeen aldi berean herrikoa. Doinu bera izan daiteke batetik *millaca urteac-igaro-arren gure egunetaraño chit-garbiro eta zuzenkiro iritsia* (114 orr.), eta bestetik *mindua, eta atsa* (112 orr.). Badirudi bakarrik izenaren arabera ezberdintzen direla, askotan, batak eta besteak. *Alkate-soñua* edo *contra dantza* esanez gero, lehendabiziko kategoriari dagokio, eta *minue* edo *oker-dantza* deituz gero, berriz, bigarrenari.

Badakigu Iztueta ez zela musikan aditua, baina ene ustez, hain kategorikoa zenez, zehastasan haundiagoa eska ziezaiokeen. Lan borobila, kontraesanik gabe, egiten saiatzen da, baina ezin du batetik euskal dantza zahar eta onestoen eta bestetik dantza arrotz, berri eta desonestoen arteko haustura garbi hori egin. Ziur aski ordurako bi estereotipo hauek nahiko nahasturik zeudelako. Ilustratuen gustuen kontra agertzea, eta haiek egindako euskal dantzaren erreformaren kontra joatea ere izanen litzatekeelako. Izan ere, paragrafo hau nahiko adierazgarria da zentzu honetan:

*orai nola zaldun-gazte, argui, ascoc icasi dituzten azteche edo seminarioetan contra - dantza ta beste aldaira-guisa anitz, obec sartu dituzte brokel-dantzan guziz egokitasun an - dian, eta chit chukinkiro [...] Azalaingo nagusi jaun D. Angel de Larretac [...] chit ederturic guztiz asco ubaritu duen bera (218 orr.)*

Beraz, kontradantza likits, nazkagarri eta turkoak, orduan, Gipuzkoako brokel-dantza *edertu* eta *ubaritzeko* balio izan zuen. Bat-batean, Iztueta mestizajearen alde agertzen zaigu. Hori bai, zaldunek ikasi zuten *seminarioetan* (Bergarakoan, suposatu beharko dugu) eginda. Baina badago beste paragrafo interesgarriagoarik ere:

*Asco-bider aditu izan diotet dantzari ustecoai darauskiotela, batean onelaco aldaira baile-Inglescoea dala, bestean alaco bolearena, ura minuetacoo; au zortzicoarena... eta ez diradela eguin bear, zein bere dantza guisaetan baizic. Engañatzen dirade bada erdi-erdi - tic onela mintzo diraden guziac, baita uste-berean daudaenac ere; zergatic edozein dantza guisatan ongui ematen duten aldaira guziac, baldin berai dagozkioten compasetan egoki - datzen zaiozcaten bezala zuzenkiro sartutzen badira; baña ez soñuaren puntuac campora eguiten-badira, asmatu alditezkean gaitasunic ederrenac-ere (276 orr.)*

Bere liburuan hainbat eta hainbat leku ezberdinetan iritzi kontrakoa agertzen bada ere, garbi iruditzen zait, paragrafo hauetan, Iztuetak euskal dantzen benetako erreforma aipatzen duela. Erreforma hau, euskal dantza tradizionalaren eta Europako dantza eruditoaren arteko

---

4. Iztuetak bi modu ezberdinetan euskaratzen du *contradanza* hitza. Gutxiespen-zentzua erabili nahi duenean, *oker-dantza* esaten dio; erabili nahi ez duenean, berriz, *contra dantza*

nahasketan zetzan, Espainian garai berean sorturiko *escuela bolera*-ren antzera. Eta erreforma honen bidez, euskal dantza -Gipuzkoako dantza, batez ere- edozein desonestasunik gabe geratzeaz gain, hegemonia erakusteko izugarritzko tresna bihurtu zen.

Ilustratuek menperatzen zituzten udalek, kasu gehienetan, gauza *desonesto* horiekin bukatzea lortu zuten. Eskuen artean zapiak inposatu, soka dantzaren azken zatian kontaktu fisikoa kontrolatu eta dantzen leku eta denbora murriztu egin zituzten, eta guzti honen erantzule udal danbolinteroa bihurtu zuten. Iztuetak jakintzat ematen ditu gauza hauek, baina sobera ongi dakigu bere garaian oso berriak zirela. (Sánchez Equiza 1996)

Hegemoniari dagokionez, Iztuetaren liburua *gorputzaren kontrola*-ren konzeptuarekin lotuta dago. Jordi Raventós-ek (1996) esan duen bezala, gorputzaren kontrolaren bidez *-representación de un ideal de conducta entendido como disciplina corporal* -ezberdintasun hegemonikoa lortzen da. Egilearen hitzetan:

*En el campo de la danza, pues, el dominio del cuerpo indica un criterio de demarcación para las clases hegemónicas. Este control denota el cultivo de un saber adquirido por la educación. [...] El "otro" es representado como carente de habilidad en el control del cuerpo, incapacitado para desenvolverse en una conducta adecuada. (38 orr.)*

Eta ezin dugu euskal dantzetan hierarkiaren adibide hoberik aurkitu Iztuetaren lanean baino, eta bereziki soka dantzan. Iztuetaren bertsiorekin arabera, izan ere, gizonen soka udal etxean bertan hasten da; aurrekuari alkateak laguntzen dio, eta atzeskuari, *batzartar prestu batec* (180 orr.). Behin plazara helduta, aurrekuak agurtu egin behar ditu balkoian dauden noble eta zinegotziak. Leinu altua duten andreek lekuri garrantzitsuenak betetzen dituzte, eta zentzu honetan, alkatearena da nagusi. Atzeskuak ahalegindu behar du aurrendariaren behean geratzen *zergatic ichuskidan aurrendaria baño jakintsuago bere burua eguitea* (178 orr.). Dantza *Alkate soñua*-rekin bukatzen da, jende guztiak ahots bera kantatuz. Iztuetaren arabera:

*Soñu señalatu errespetuoso au enzutean, plazan arkitzen dan jende guzia oroitzen-da Jaungoicoarekin Erregueren izenean jarriric-dagoen errico-buruzari aundientsuaren agintza indartsuaz, eta bera aurketzean egon-ez-arren, lotsa eta beldur izaten-dira leguearen contraco gauzaric ez ezen, bide gabekeriric chikiena ere iñori eguitea (62 orr.)*

Iztuetak berak aipaturiko Jovellanos-en hitzak gogoratzea oso egokia da:

*Por el contrario, unos hombres frecuentemente congregados a solazarse, y divertirse en común, formarán siempre un pueblo unido y afectuoso [...] Cada uno estimará a su clase, porque se estimará a sí mismo, y estimará las demás, porque querrá que la suya sea estimada. De este modo, respetando la jerarquía y el orden establecidos por la ley, vivirán según ella; la amarán y la defenderán vigorosamente, creyendo que se defienden a sí mismos. Tan cierto es que la libertad y la alegría de los pueblos están más distantes del desorden que la sujeción y la tristeza. (311-321 orr.)*

Iztuetak, azken finean, Gipuzkoako plazen errealtatea deskribatu baino, giro ideal bat deskribatzen duela dirudi. Liburuan azaltzen duena benetako erreforma bat da, eta erreforma horretan helbururik nagusia ez zen bakarrik, Elizak nahi zuen bezala, lizunkeriak garbitzea, ezberdintasun sozial eta hegemonikoaren sendotze, islada eta lagina egitea baizik. Honek azaltzen dizkigu zenbait puntu ilun: zergatik aurkeztu zuen bere liburua Ingalaterra, Austria eta Errusiako enbaxadetan; zergatik izan zituen hainbeste berme erakundeetan; nola, bere iragan susmagarria ahaztuta, hartu zituen kargu ezberdin batzuk administrazioan; edo nondik ateratu zuen dirua bere lanak argitaratzeko (batez ere bigarrena, Penintsulan argitaratutako partiturak zituen liburu zaharretariko bat zenez, derrigorrez arras garestia).



## IZTUETAREN LANAREN EMAITZAK

Guzti hau kontutan harturik, erraza da Iztuetaren lana eremu etnomusikologikoan kokatzea, bereziki Josep Martí-k proposaturiko *folklorismo* kontzeptuari lotuz (1996). Egile honen arabera, hain zuzen ere, prozesu folkloristikoa aldaketa bat da; prozesu honen bidez mestizaje baten emaitza -tradizio baten asmakizuna- *benetako* ohituratzat agertzen da; eta ohitura honen ustezko aintzinasunak sakratutasuna ematen dio, aldaketa hori mugiezin bihurtuz.

Iztuetak folklorismoaren ezaugarri guziak betetzen ditu: aintzinasuna baloretzat hartzen du (eta, horregatik, euskaldunen aintzinasuna frogatzen biziki saiatzeko da), bere zentzu etnikoa ukazina da; eta herriko tradizioak (batez ere, jakina, bere *onestasuna*) idealizatzen ditu. Zentzu honetan, inolako beldurrik gabe esaten ahal dugu bere lanean Iztuetak ilustratuek egiten ari ziren aldaketak justifikatzen dituela, baina ez aldaketatzat hartuta, ohitura zahar eta, horregatik, mugiezintzat hartuta baizik. Europa osoan gure mendearen hasieran zabaltu zela eta, biziki aurreratu zen zaldibiarra tendentzia folkloristikoan.

Dakigun neurrian behintzat, Iztuetaren lanak porrot egin zuen bere garaian. Goiko klaseek ez zuten herriko dantzak mantentzeko interesik: ezberdintasun sozialak agirian geratzen ziren dantza ezberdinak leku ezberdinetan (*saraoetan*) eginez; XVIII. mendeko moda bukolikoa pasa zen, eta gainera, oso egun berezietan, posible zen hierakia hori azaltzea ohorezko aureskua dantzatzu.

Herriko dantzak, noski, mantendu egin ziren, eta bai bere mantenimenduan, bai bere batzean, Iztuetaren oinordeak arras garrantzitsuak izan ziren. Aipaturiko mugiezintasunaren arabera, modu ia pontifikalean, Gipuzkoako dantzen araztasuna mantendu zen maisu maisu: Jose Antonio Olanok Iztuetarengandik ikasi zituen Gipuzkoako dantzak, eta gero Jose Lorenzo Pujanari erakutsi zizkion. Honek gauza bera egin zuen Candido semearekin, zeinak *Goi-zaldi* taldea eta Donostiako Euskal Dantzak Udal Akademiaren bitartez, gure garaiarekin konexioa egin zuen.

Eta, jakina, Euskal Berpizkundea sortu zenean, Iztuetaren lanaren garrantzia nabaria egin zen: eta ez bakarrik euskal kulturaren adierazgarri oso zaharra izateagatik, bere ezaugarri ideologiko gehienak erromantiko eta nazionalistekin ados egoteagatik baizik. Iztuetak, ikusi dugun bezala, sekulako garrantzia izan zuen euskal dantzen zentzu *onesto* eta hierarkikoa ezartzerakoan eta, jakina, eragin arrotzen kontra aurkezterakoan. Horregatik, 1929an bere herrian, Zaldibian, omenaldi bat egin zioten Olanorekin batera. Bere lana berriro argitaratu zen eta Eusko Ikaskuntzak berrehun ale banatu zituen Euskal Herriko Txistulari Elkarteko bazkideen artean. Gure garaian, bere argibideak hartu dira zehatz-mehatz dantzak berregin edo *berreskuratze*ko. Bere bizitzak eta bere lanak anitz obra sortarazi ditu eta gaur egunean inork ez du zalantzan jarri zaldibiarra euskal kulturaren pertsonaia garrantzitsuenetakoa dela.

Baina bere jaioterriko tradizioekiko maitasunak ezin dizkigu ahaztarazi bere parte hartzea Ilustrazioaren ideietan edo bere boterearen interesekiko hitzarmena. Ez dugu ahaztu behar Iztueta, gu guziok bezala, une zehatz batean bizi zela, eta une hartako ideiak, egoera eta pentsamoldea ez zirela gaur egungoak. Hori adierazten besterik ez naiz saiatu lerro hauetan.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ANSORENA MINER, Jose Inazio (1995): *Iztueta eta Albéniz-en musika bilduma*. Txistulari, nº 163.

AZCUE, Resurrección M<sup>a</sup> de (1919): *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

- DON PRECISO (Juan Antonio de ZAMÁCOLA E IZA) (1799): *Colección de seguidillas, tiranas y polos, que se han compuesto para cantar a la guitarra*. Madrid: 1805.
- FUBINI, Enrico (1990): *La estética musical desde la Antigüedad hasta el siglo XX*. Madrid: Alianza Editorial, 1990.
- GARMENDIA ARRUABARRENA, José (1984): "Una fuente inadvertida en las obras de Iztueta", en *Boletín de la RSBAP*, 1984, pp. 783 - 797.
- (1995): *Juan Ignacio Iztueta, dantzarien maisu eta miscelánea*. Zaldibia: Alberdania, 1995.
- IZTUETA, Juan Ignacio de (1824): *Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- MARTÍ i PÉREZ, Josep (1996): *El folklorismo: uso y abuso de la tradición*. Barcelona: Ronsel, 1996.
- RAVENTÓS i FREIXA, Jordi (1996): "La danza francesa en Barcelona durante el siglo XVIII: recepción y transformación", en *Actas del Primer Congreso de la Sociedad Ibérica de Etnomusicología*. Sabadell: SlbE, 1996, pp. 31-39.
- SÁNCHEZ EQUIZA, Carlos (1991): "En torno al zortziko", en *Txistulari*, nº 146 - *Dantzariak* nº extraordinario julio 91, pp. 44-53.
- (1996): "Oneski dantzaten. Ilustración y danza tradicional vasca" en *Transiberia*: [www2.uji.es/trans/TRANSiberia1/%20Equiza.html](http://www2.uji.es/trans/TRANSiberia1/%20Equiza.html)
- (1999): *Del danbolin al silbo: Txistu, tamboril y danza vasca en la época de la Ilustración*. Pamplona: 1999.
- URBELTZ NAVARRO, Juan Antonio (1994): *Bailar el caos: la danza de la osa y el soldado cojo*. Pamplona: Pamiela, 1994.
- ZAMÁCOLA E IZA, Juan Antonio de (1898): *Historia de las Naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo septentrional y costas del mar Cantábrico, desde sus primeros pobladores hasta nuestros días: Con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los Estados Bascos que hoy existen*. Bilbao: Tipografía José de Astuy, 1898.